

# COVID-19 MAILEGUA Euriborra + % 0



## MAILEGUAREN EZAUGARRIAK

### • Zenbatekoak:

- **Autonomoak:** 5.000 eta 100.000 euro bitartekoa.
- **Enpresak:** 5.000 eta 1.000.000 euro bitartekoa.

### • Helburua:

6 hilabeteko gastu finkoek sortutako likidezia-beharrak estaltzea: pertsonal-gastuak, zergak, kanpoko hornidura eta zerbitzuak, maileguen kuotak eta epe luzeko finantza-gastuak...

### • Maileguaren komisioak:

% 0ko irekitzekoa, % 0ko amortizazio partzialekoa eta % 0ko ezerezte aurreratukoa.

### • Interes-tasa:

6 hileko Euriborra + % 0 (% 0ko lurzorua)

Mailegu-kontratuko interes-tasa 6 hileko Euriborra + % 0,50ekoa da (% 0,50eko lurzorua), baina Eusko Jaurlaritzak aldea konpentsatuko du.

### • Elkargi SGR-ren abalaren baldintzak

- Abalaren azterketa-komisioa: % 0,25 (maileguaren zenbatekoaren gainean).
- Abalaren urteko komisioa ordaintzeko dagoen saldoaren % 0,375.  
Kontratuan abalaren komisioa % 0,75ekoa da, baina Eusko Jaurlaritzak aldea konpentsatuko du.
- EBSari egiten zaion kapital-ekarpena: eragiketaren % 2 (eragiketa amaitzean itzulgarria).

## EGIN BEHARREKO URRATSAK

### • Nola eskatu?

Jarri harremanetan zure **LABORAL Kutxa** bulegoarekin, eta gu arduratuko gara eskaera egiteaz. Harremanetan egongo gara, posta elektronikoaren bidez, Online Bankaren bidez edo telefonoz. Eskaera egiteko baimena sinatu beharko diguzu, besterik ez.

### • Zer dokumentu eman behar dituzte autonomoek?

Dokumentu hauek eman behar dituzu:

- NANaren fotokopia
- 2017ko eta 2018ko errenta-aitorpenak
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria

Gainera, sinatu eta/edo bete behar dituzun dokumentu hauek emango dizkizugu:

- Ondasunen eta banku-zorpetzearen deklarazioa
- Zuritzearen prebentzioaren dokumentazioa
- CIRBEren informaziorako baimena
- Minimis adierazpena
- Eragiketaren eskaera / COVID19 justifikazioa  
Beharra justifikatzeko txostena. Zenbatekoa 6 hileko egitura-gastuetan oinarrituta zehaztu behar da, eta likidezia-premia txikitzen duten faktorerik badago (ABEEEk, EEEak, zerga-gerorapenak eta abar), eskatutako zenbatekotik kenduko da.

### • Zer dokumentu eman behar dituzte enpresek?

Dokumentu hauek eman behar dituzu:

- Ordezkararen NANaren fotokopia
- Enpresaren IFKren dokumentua
- 2017ko eta 2018ko sozietateen gaineko zerga
- 2019ko egoera-orri finantzarioak
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria
- Jardueraren memoria (Elkargi SGR-ren bazkidea ez bazara)

Gainera, sinatu eta/edo bete behar dituzun dokumentu hauek emango dizkizugu:

- Banku-poola
- Zuritzearen prebentzioaren dokumentazioa
- CIRBEren informaziorako baimena
- Minimis adierazpena
- Eragiketaren eskaera / COVID19 justifikazioa  
Beharra justifikatzeko txostena. Zenbatekoa 6 hileko egitura-gastuetan oinarrituta zehaztu behar da, eta likidezia-premia txikitzen duten faktorerik badago (ABEEEk, EEEak, zerga-gerorapenak eta abar), eskatutako zenbatekotik kenduko da.

### • Behin dokumentazioa bete eta mailegua eskatu ondoren, zein dira hurrengo urratsak?

- Elkargi SGRk 72 orduko epean erantzungo dizu, gutxi gorabehera.
- Eskaera onartzen bada, mailegu-poliza sinatu beharko duzu.

ESKATU